

# 2010

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEKOAREN AURREKONTU OROKORRAK PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

### ● ARGIBIDE MEMORIA

- Ekonomia eta Aurrekontu Politikaren inguruko orientazioak
- Politika Publikoak
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana 2010
- Lege-proiektuaren Testu Artikulatuarri buruzko iruzkinak
- Erakunde-egitura eta Aurrekontu-egitura

### MEMORIA EXPLICATIVA

- Orientaciones de Política Económica y Presupuestaria
- Políticas Públicas
- Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2010
- Comentarios al Texto Articulado del Proyecto de Ley
- Estructura Institucional y Estructura Presupuestaria

# 1

## Gai Orokorrak Temática General

# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

# 2010

EUSKO JAURLARITZA

ECONOMIA ETA OGASUN  
SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA  
Y HACIENDA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2010

**Argitaratzailea:** **Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Edita: Servicio General de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

**Inprimaketa:** **Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografía Zerbitzua**  
Imprime: Servicio de Imprenta y Reprografía del Gobierno Vasco

**Lege gordailua:** **BI 900-1983**  
Depósito Legal:

# ARGIBIDE MEMORIA

## MEMORIA EXPLICATIVA

### 1 ALEA TOMO 1

#### Aurkibidea / Indice :

---

I.	EKONOMIA ETA AURREKONTU POLITIKAREN INGURUKO ORIENTAZIOAK .....	1
	<i>ORIENTACIONES DE POLÍTICA ECONÓMICA Y PRESUPUESTARIA</i>	
II.	POLITIKA PUBLIKOAK .....	15
	<i>POLÍTICAS PÚBLICAS</i>	
III.	LEGE EGITASMOAREN TESTU ARTIKULATUARI BURUZKO IRUZKINAK .....	63
	<i>COMENTARIOS AL TEXTO ARTICULADO DEL PROYECTO DE LEY</i>	
IV.	2010 ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO PLANA.....	75
	<i>PLAN DE CIENCIA, TECNOLOGÍA E INNOVACIÓN 2010</i>	
V.	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN EGITURA INSTITUCIONALA .....	85
	<i>ESTRUCTURA INSTITUCIONAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI</i>	
	- ERAKUNDEEN ZERRENDA .....	87
	<i>RELACIÓN DE INSTITUCIONES</i>	
	- ERAKUNDE-ANTOLAKETA .....	95
	<i>ORGANIZACIÓN INSTITUCIONAL</i>	
VI.	ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMO ADMINISTRATIBOEN	
	AURREKONTU-EGITURAK.....	105
	<i>ESTRUCTURAS PRESUPUESTARIAS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL Y DE LOS ORGANISMOS AUTÓNOMOS ADMINISTRATIVOS</i>	
	- EGITURA ORGANIKOEN ZERRENDA.....	107
	<i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS ORGÁNICAS</i>	
	- EGITURA EKONOMIKOEN ZERRENDA: GASTUA .....	129
	<i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS ECONÓMICAS-GASTO</i>	
	- EGITURA EKONOMIKOEN ZERRENDA: SARRERA .....	153
	<i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS ECONÓMICAS-INGRESO</i>	
	- EGITURA FUNTZIONALEN ZERRENDA.....	173
	<i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS FUNCIONALES</i>	

# 2010

---

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK  
PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI



I **EKONOMIA ETA AURREKONTU POLITIKAREN  
INGURUKO ORIENTAZIOAK**  
**ORIENTACIONES DE POLÍTICA ECONÓMICA Y  
PRESUPUESTARIA**

# 2010

---

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK  
PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

## EKONOMIA ETA AURREKONTU POLITIKAREN INGURUKO ORIENTAZIOAK

### 1.- Ekonomia-krisiari aurre egiteko aurrekontuak

EAEko 2010erako aurrekontuak testuinguru honetan kokatzen dira: ekonomia-atzeraldik sakona eta uste baino luzeagoa. 2009ko ekonomia-emaitzak etsigarriak izaten ari dira, eta, une honetan, nazioartean, Nazioarteko Diru Funtsak eta nazioarteko beste erakunde batzuek suspertzea sumatu eta, astiro bada ere, datorren urterako atzeralditik aterako direla adierazten duten bitartean, gure kasuan atzerapen-joerak moteldu egingo direla esaten da, eta, aurreikuspenen arabera, datorren ekitaldian ez gara itzuliko hazkunde-tasa positiboetara. Izañ ere, 2009ko irailean egin den BPGren hazkundearen 2009rako aurreikuspena puntu erdi txikiagoa da (%-2,9) maiatzean egin zen “EAEko 2010erako aurrekontuak egiteko jarraibide ekonomikoen” erabakian jasotzen zen aurreikuspena baino. 2010era begira, azken aurreikuspenek diote egoerak hobera egingo duela, inguruaren hobekuntzaren ondorioz, batez ere bigarren seihiilekotik aurrera. Hala ere, BPGren hazkunde-tasa negatiboekin (%-0,8) eta 2009koa baino langabezia-tasa handiagoarekin (%9,3) jarraituko dugu. Beraz, Europako eta nazioarteko inguruaren igurikimenak hobetu egiten dira, baina euskal ekonomiaren suspertzea atzeratu egiten da.

EAEko 2010erako aurrekontuak krisi-egoera horri eta krisiaren ekonomia- eta gizarte-ondorioei aurre egiteko diseinatu dira. Gaingiroki, aurrekontuek batez ere lau alderdiri eragiten diete: i) krisiak gizarteko talderik ahulenetan izan dituen eraginak leuntzea; ii) produkzio-egiturari eusteko eta ekonomia suspertzeko estrategia bultzatzea; iii) ekonomia-garapen iraunkorrerako baldintzak sortzea, beharrezko egitura-aldaaketak barne; eta iv) hori guztia aurrekontu-egonkortasunean jarri beharreko arreta galdu gabe, sarrera ez-finantzarioen jaitsiera sakonak eragindako zerga-krisi larria dela-eta.

Aurrekontuak soilak dira, eta ahalegin handia egin da gizarte-zerbitzuei lotuta ez dagoen gastu arruntari eusteko; aurrekontuak solidarioak dira, handitu egiten dutelako langabeek eta sektore ahulenek behar duten gizarte-babesa bermatzera bideratutako aurrekontu-zatia; aurrekontu hauek eutsi egingo diete enpresen finantzaketari eta zerga-pizgarriei laguntzeko programei, atzeralditik atera arte; eta, azkenik, epe ertainean garapen-estrategia iraunkorren aldeko apustua egiten duten aurrekontuak dira, berrikuntzan oinarrituta, zentzu zabalean, ekonomia-lehiakortasuna handitzeko eta ingurumen-iraunkortasuna lortzeko tresnarik onena den aldetik.

## ORIENTACIONES DE POLÍTICA ECONÓMICA Y PRESUPUESTARIA

### 1.- Unos presupuestos para enfrentar la crisis económica

Los presupuestos de la CAE para 2010 se enmarcan en un contexto de recesión económica profunda y más duradera de lo previsto. Los resultados económicos de 2009 están siendo decepcionantes y, en estos momentos, cuando a nivel internacional el FMI y otros organismos internacionales atisban ya una recuperación y se anuncia una lenta salida de la recesión para el próximo año, en nuestro caso solamente se manifiesta una moderación de las tendencias recesivas y no se prevé el retorno a tasas de crecimiento positivas en el próximo ejercicio. De hecho la previsión de crecimiento del PIB para 2009 que se realiza en septiembre 2009 es medio punto más bajo (-2,9%) que la previsión que figuraba en el acuerdo de las “Directrices Económicas para la elaboración de los presupuestos de la CAE 2010” que se realizó en mayo y, respecto al 2010, las últimas previsiones vaticinan que mejorará la situación, de la mano de la mejora del entorno, principalmente a partir del segundo semestre, pero continuaremos con tasas de crecimiento negativas del PIB (-0,8%) y con una tasa de paro superior a la de 2009 (9,3%). Por lo tanto, las expectativas del entorno europeo e internacional mejoran pero la recuperación de la economía vasca se retrasa.

Los presupuestos de la CAE para 2010 se diseñan para hacer frente a esta situación de crisis y a sus consecuencias económicas y sociales. A grandes rasgos inciden principalmente en cuatro aspectos: i) aliviar los efectos de la crisis en los colectivos más débiles de la sociedad; ii) el impulso a una estrategia de conservación del aparato productivo y de recuperación económica iii) la creación de las condiciones para un desarrollo económico sostenible, incluidas las reformas estructurales necesarias, y iv) todo ello sin perder de vista la necesaria atención a la estabilidad presupuestaria en una situación de aguda crisis fiscal provocada por la bajada profunda de los ingresos no financieros.

Se trata de unos presupuestos austeros en cuanto a su concepción, con un importante esfuerzo de contención del gasto corriente no vinculado a los servicios sociales; unos presupuestos solidarios que aumentan la parte del presupuesto destinado a garantizar a los parados y a los sectores más vulnerables la necesaria protección social; unos presupuestos que van a mantener los programas de apoyo a la financiación de las empresas y de estímulo fiscal mientras no se salga de la recesión y, finalmente, unos presupuestos que apuestan a medio plazo por una estrategia de desarrollo sostenible, basada en la innovación en un sentido amplio como el mejor instrumento para elevar la competitividad económica y lograr la sostenibilidad ambiental.

## 2.- Abiapuntua: ekonomia-krisiaren eragina 2009ko aurrekontuetan

EAEko 2010erako aurrekontu orokorrak ulertzeko, 2009an zer gertatu den jakin behar da. Horretarako, aurrekontuetan jasotako zifren eta urte horretako aurrekontuen egikaritze errealauren arteko kontrastea aztertu behar da, aurrekontu horietan oinarrituta eraikitzen baitira aurrekontu berriak. 2009ko aurrekontua egiteko, ekonomiaren eta zergabiltetaren bilakaerari buruz 2008ko udazkenean egin ziren aurreikuspenak hartu ziren oinarritzat. Aurreikuspen horien arabera, ekonomiaren erritmoa atzeraldian sartuko zen, astiro-astiro. Hala ere, benetako hondatze-erritmoa, hain zuen ere 2008ko azken hiruhilekotik aurrera, une hartan aurrez ikusitakoa baino askoz ere azkarragoa izan zen, eta eragin izugarria izan zuen 2008ko zerga-sarreren bilakaeran; izan ere, sarrera horiek aurrez ikusitakoak baino 1.448 milioi euro txikiagoak izan ziren. Ondorioz, kontuetan desoreka sortu zen, eta, desoreka hori estaltzeko, aurreko ekitaldietai superabitei esker metatutako diruzaintza-geldikinak erabili ziren batez ere.

### 2.1.- Sarrera ez-finanzarioak

Ekonomia- eta finantza-krisiaren indarra murriztapen handiak eragiten ari da zerga gehienetan menpeko oinarrieta, bai eta likidezia-arazoak ere enpresetan. Horrek arriskuan jartzen du enpresek euren zergabetebeharrak bete ahal izatea. Horrez gain, krisiaren aurkako neurri arau-emaile berrien eraginaren ondorioz ere, zerga-bilketa murriztu egin da oro har. Izan ere, neurri horiek zerga-onuren bitartez egituratu dira, ekonomia-jardueraren pizgarri izateko. Zerga batzuetan, urte arteko jaitsierak inoizkorik handienak izan dira, eta zergabiltetaren mailek atzera egin dute, duela urte batzuetako mailetara.

Testuinguru horretan, zerga itunduen bidezko zergabiltetaren aurreikuspena 2009ko abenduaren 31n 10.388 milioi euro-koa da; zenbateko hori aurreko ekitaldiaren itxieran lortutako zenbatekoa baino 2.446 milioi \_ txikiagoa da. Hori atzerakada handia da hiru foru aldundientzat, eta % -19,1eko aldaketa dakin EAE osorako.

Zerga-bilketaren aurreikuspen horrek adierazten du desoreka handia dagoela 2009rako zerga-sarreren aurrekontuarekiko (3.202 milioi euro gutxiago), eta ez-betetze maila ere garrantzitsua dela. Izan ere, 2009ko itxierako zenbatespen horiekin, 2009rako zerga-sarreren aurrekontuen %76,4 egikarituko litzateke EAEn. Aurrekontu-estalduraren tasa hori baxuena da Ekonomi Ituna indarrean sartu zenetik.

## 2.- El punto de partida: el impacto de la crisis económica en los presupuestos de 2009

Para entender los presupuestos generales de la CAE de 2010 es preciso conocer lo que ha ocurrido en 2009 y para ello analizar el contraste entre las cifras presupuestadas y la ejecución real de los presupuestos de ese año que constituyen la base sobre la que se edifican los nuevos presupuestos. El presupuesto de 2009 se elaboró con las previsiones que se hacían sobre la evolución de la economía y de la recaudación en otoño de 2008 que auguraban un retroceso lento del ritmo de la economía. Pero el ritmo real de deterioro, precisamente a partir del último trimestre de 2008, fue mucho más agudo del previsto en aquellos momentos y afectó de manera drástica a la evolución de los ingresos fiscales de ese año 2008, que fueron 1.448 Millones de euros inferiores a los previstos. El correspondiente desequilibrio de las cuentas fue cubierto principalmente recurriendo a los remanentes de tesorería acumulados procedentes de superávits de ejercicios anteriores.

### 2.1.- Ingresos no financieros

La intensidad de la crisis económica y financiera está provocando fuertes reducciones en las bases gravadas por la mayoría de los impuestos, así como problemas de liquidez en las empresas, poniendo en riesgo el cumplimiento de sus obligaciones tributarias. Además, el impacto de recientes medidas normativas anticrisis, articuladas mediante beneficios fiscales para estimular la actividad económica, contribuye a que se produzca una reducción generalizada de la recaudación, con caídas interanuales de una magnitud hasta ahora desconocida en algunos impuestos y retrocesos a niveles de recaudación tributaria de varios años atrás.

En este contexto, la previsión de recaudación por tributos concertados a 31 de diciembre de 2009 se sitúa en 10.388 millones de euros, cifra 2.446 millones de \_ menor que el importe alcanzado al cierre del ejercicio anterior, lo que supone un fuerte retroceso para las tres Diputaciones Forales, y una variación del -19,1% para el conjunto de la CAPV.

Esta previsión de recaudación pone de manifiesto un gran desfase respecto al Presupuesto de ingresos tributarios para 2009 - 3.202 millones de euros menos-, con un significativo grado de incumplimiento. De hecho, con estas estimaciones de cierre de 2009 los Presupuestos de ingresos tributarios para 2009 se verán ejecutados a nivel de la CAPV en un 76,4%, tasa de cobertura presupuestaria que alcanza su nivel más bajo desde la entrada en vigor del Concierto Económico.

Zerga-bilketan gertatutako doikuntzak (%-19,1) alde handiarekin gainditzen du ekitaldi amaieran BPG errealaren %2,9ko jaitsiera zenbatesten duen koadro makroekonomiko batetik itxaron litekeena. Zerga itunduen bidezko zerga-bilketaren jaitsiera hori BPGk jasandakoa baino askoz ere handiagoa da, eta, jaitsiera horren ondorioz, zerga-presioa (euskal zerga-bilketaren eta BPgren arteko zatidura) %15,3koa da. Presio hori %18,5ekoa izan zen 2008an, eta %20,9koa 2007an. Beraz, zerga-presioak BPgren 3,2 puntu egin du behera aurtzen, eta 5,6 puntu azken bi urteetan.

Aurrekontuaren ikuspegitik, zerga-presioaren jaitsiera hori da alderdirik kezkagarriena, horrek azaltzen baititu gaur egungo aurrekontu-tentsioak. Hidrokarburoak eta tabakoa zergapetzen dituzten zerga bereziek izan ezik, gainerako zergek jaitsiera handiak izan dituzte zerga-bilketan. Izan ere, zerga berezi horiek neurrizko hazkunde-tasei eusten diente, 2009an horien zerga-tasek igoerak izan dituztelako. Zehazki, bilketa-ahalmen handiena duten zergek, hau da, PFEZak, BEZak eta Soziitateen gaineko Zergak %12, %25 eta %33 egin dute behera hurrenez hurren, eta guztiak orain dela urte batzuetako bilketa-mailetara egin dute atzera.

## 2.2.- Gastu ez-finantzarioak

Aldi berean, gastu-beharrak handitu egin dira, atzeraldi guztietai gertatzen den bezala. Lehenik eta behin, egonkortzaile automatikoen ondorioz, bestek beste, oinarrizko errenta, gizarte-larrialdiatarako laguntzak eta langabeentzako laguntza- eta birlaneratze-neurri guztiak. Izañ ere, neurri horiek izugarri egiten dute gora krisialdian, eskatzaileen eta eskubidea duten hartzaleen kopuruak gora egiten duelako. Bestalde, gobernuak hartu behar izan dituen zerga-pizgarrien aparteko neurrien ondorioz, ekonomia-atzeraldiaren eraginak leuntzen laguntzeko.

Ildo horretan, legebiltzarra presako aurrekontu-neurrien multzo bat onetsi du: “+ Euskadi 09” (1/2009 Legea, urriaren 8koa), krisiaren aukako jarduera berriak jasotzen dituena; 390 milioi euroak ditu guztira, eta, horietatik, 214 milioi euroak inbertsio-gastuetarako dira. Neurri horien asmoa, batik bat, honakoa da: 10 mila lanpostu sortzea eta gizarteratzea bultzatzea, azpiegitura publikoen gauzatzea bizkortzea, ekonomia- eta empresa-jarduera sustatzea, I+G+b eta nazioartekotzea sustatzea, eta oinarrizko zerbitzuak ekipamenduz hornitzea.

El ajuste producido en la recaudación tributaria (-19,1%) supera ampliamente al que podría esperarse de un cuadro macroeconómico que estima un descenso del PIB real del 2,9% al fin del ejercicio. Esta caída de recaudación por tributos concertados, muy superior a la experimentada en el PIB, ha hecho que la presión fiscal, entendida ésta como el cociente entre la recaudación y el PIB vascos se haya situado en el 15,3%, cuando en 2008 estaba en el 18,5% y en 2007 en el 20,9%. Por tanto, la presión fiscal ha bajado 3,2 puntos de PIB a lo largo del presente año y 5,6 puntos en los últimos dos años.

Esta, la de la caída de la presión fiscal, es desde un punto de vista presupuestario el aspecto más preocupante, y el que explica las actuales tensiones presupuestarias. Salvo los Impuestos Especiales que gravan los Hidrocarburos y el Tabaco, que mantienen tasas de crecimiento moderado como consecuencia de haberse visto afectados por incrementos en sus tipos impositivos durante el año 2009, el resto de impuestos sufren importantes caídas de recaudación. En concreto, los de mayor potencial recaudatorio, el IRPF, el IVA y el Impuesto sobre Sociedades descienden en porcentajes del 12%, el 25% y el 33% respectivamente, habiendo retrocedido en todos ellos a niveles de recaudación de varios años atrás.

## 2.2.- Gastos no financieros

Paralelamente, los requerimientos de gasto se han incrementado como corresponde a todo periodo de recesión. En primer lugar por el funcionamiento de los estabilizadores automáticos, entre otros la renta básica, las ayudas de emergencia social y todo el abanico de medidas de ayuda y reinserción a los parados que aumentan de forma vertiginosa en períodos de crisis porque aumenta el numero de demandantes y de perceptores con derecho. Y por otro lado, por las medidas extraordinarias de estímulo fiscal que el Gobierno ha debido adoptar para contribuir a paliar los efectos de la recesión económica.

En ese sentido el Parlamento ha aprobado un paquete de medidas presupuestarias urgentes: “+ Euskadi 09” (Ley 1/2009, de 8 de Octubre), un conjunto de nuevas actuaciones anticrisis dotado con un total de 390 millones de euros, de los que 214 millones de euros corresponden a gastos de inversión. Las medidas adoptadas persiguen generar 10 mil empleos y favorecer la inserción social, acelerar la ejecución de infraestructuras públicas, promocionar la actividad económica y empresarial, el fomento de la I+D+i y la internacionalización, y la dotación de equipamientos en los servicios básicos.

Beste ekimen batzuen artean, planak honako hauek jasotzen ditu: udalek edo erakunde publiko edo pribatuek 7.000 langabe eta oinarrizko errentaren hartzale kontrataztea finantzatzea, autonomo eta saltegi txikientzako kontratazio-laguntzak, Bilboko metroaren 4. linea hasta Moyua eta Rekalde artean, EHUKO tranbiaren obrak Leioan, metroaren obrak Donostialdean, Gasteizko alde zaharra birkaitzeko lanak, ospitale bat eraikitzea Eskuinaldean, eta makina-erremintaren, etxetresna elektrikoen eta altzarien Renove planak. Horiez gain, beste hauek ere jasotzen ditu: langilerik ez daukaten autonomoek Gizarte Segurantzako kuotak ordaindu ahal izateko laguntza zuzenak, ikastetxeetan energia-aurrezpena hobetzeko neurriak, gaixo kronikoentzako telelaguntza-programak, eta udalen finaniza-arazoak leuntzeko aparteko partida bat.

Bi kontzeptuek, hau da, egonkortzaile automatikoak aktibatzeak eta pizgarriek, asko handitu dute gasto ez-finantzarioa 2009rako. Hala ere, neurri horiek guztiak erabat beharrekoak dira gaur egungo ekonomia-egoeran.

### **2.3.- Defizit publikoa handitzea eta finantzaketa**

Bi bilakaeren konbinazioa, hau da, sarrera ez-finantzarioen (aurrez ikusitakoak baino askoz ere txikiagoak izan dira) eta gasto ez-finantzarioen (aurrez ikusitakoak baino askoz ere handiagoak izan dira) bilakaera erreala, finantzaketa-behar handia sortzen ari da urtean. Izen ere, urte amaieran, defizit publikoa BPGren %4 baino handiagoa izango da, eta defizit hori ezin izango da estali diruzaintza-geldikinez (2008an egin zen bezala), geldikin gehienak agortu egin baitira.

Egoera horri aurre egiteko, Ekonomia eta Ogasun Saila, ekitaldiaren erdialdean, lehenengo neurriak hartzen hasi da gasto ez-emankorra edo lehentasun txikiagokoa sailletatik kentzeko, baina hori ez da izan nahiko. Sarrera arrunten ezohiko jaitsieraren ondorioz, gobernuak Presako Neurriei buruzko Legea aurkeztu behar izan zion Legebiltzarri. Lege horrek baimena ematen dio gobernuari 2009rako zorpetze-muga 1.050 milioi euro-raino handitzeko, eta muga hori 2009ko aurrekontu orokoretan jasotako 300 milioi euro-ko zenbatekoari gehituko litzairoke. Horri esker, presako neurrien multzoa finantzatu ahal izan da, eta aurrez ikusitako sarreren eta benetan jasotako sarreren arteko aldeari aurre egin ahal izan zaio. Ezohiko zorpetze horren erabakia arrazoizko finantzaketa-aukera da, EAEko zor publikoaren maila baxua delako, Espainiako autonomia-erkidego guztien arteko baxuena (BPGren %1,3 2008an), eta, sortzen dituen gastuak, amortizazioak eta interesak, erabat onargarriak direlako.

### **3.- Egonkortasun-helburua eta gastuaren muga finkatzea 2010erako**

Entre otras iniciativas, el plan incluye la financiación de la contratación de 7.000 desempleados y perceptores de renta básica por parte de los ayuntamientos u organizaciones de carácter público o privado, ayudas a la contratación para autónomos y pequeños comercios, el inicio de la Línea 4 del Metro de Bilbao entre Moyua y Rekalde, las obras del tranvía de la UPV en Leioa, las del Metro de Donostialdea, la rehabilitación del casco viejo de Vitoria, la construcción de un hospital en la Margen Derecha y los planes Renove de máquina-herramienta, electrodomésticos y mobiliario. También contempla ayudas directas para que los autónomos que no tienen empleados puedan pagar sus cuotas de la Seguridad Social, medidas para mejorar el ahorro energético en centros escolares; programas de teleasistencia a enfermos crónicos y una partida extraordinaria para aliviar los problemas financieros de los ayuntamientos.

Ambos conceptos, la activación de los estabilizadores automáticos y las medidas de estímulo, absolutamente necesarias en la coyuntura económica actual, han incrementado considerablemente la evolución del gasto no financiero para 2009.

### **2.3.- Aumento del déficit público y financiación**

La combinación de ambas trayectorias, la evolución real de los ingresos no financieros, muy inferiores a los previstos, y los gastos no financieros muy superiores a los previstos, está produciendo a lo largo del año una importante necesidad de financiación, un déficit público que al cierre del año superará el 4% del PIB, déficit que no podrá ser cubierto con remanentes de tesorería, como en 2008, porque éstos ya se han agotado en su mayor parte.

Para hacer frente a esta situación el Departamento de Economía y Hacienda ha comenzado a mediados del ejercicio a tomar las primeras medidas para eliminar el gasto improductivo o menos prioritario de los Departamentos, pero ello no ha sido suficiente. La extraordinaria bajada de los ingresos corrientes obligó al Gobierno a presentar al Parlamento la Ley de Medidas Urgentes que autoriza al Gobierno a aumentar el límite del endeudamiento para 2009 hasta 1.050 Millones de euros, que se añadirán a los 300 millones de euros previstos en los Presupuestos generales de 2009, lo que ha permitido financiar el nuevo paquete de medidas urgentes y hacer frente a la diferencia entre ingresos previstos y realmente ingresados. Esta decisión de endeudamiento extraordinario es una alternativa de financiación razonable porque el nivel de deuda pública de la CAE es bajo, el más bajo entre todas las Comunidades Autónomas españolas (1,3% del PIB en 2008) y los gastos que genera, amortizaciones e intereses, son perfectamente asumibles.

### **3.- Objetivo de estabilidad y fijación del techo de gasto para 2010**

Goitik gasto ez-finantzarioaren muga bat jartzea Europan hedatzen ari den prozedura da, Egonkortasun eta Hazkunde Ituna ezarri eta gero. Horren xedea aurrekontuak egiteko prozesua aldatzea da. Aurrekontuak egiteko aurreko ereduau, aurrekontua zentro kudeatzaleek planteatutako beharrak batzearren emaitza zen (herrialde askotan, hori izan da defizit publiko handiak metatzearen arrazoia). Eedu berrian, aldiz, lehenengo aurrekontuaren inguratzaila edo finantza-markoa definitzen da, hau da, gero bigarren fase batean banatu egingo den gasto ez-finantzarioaren muga ezartzen da.

Gastuaren muga hori bat dator aurrekontu publikoa finantzatzeko aukerekkin (aukera errealistikak eta finantz publikoira iraunkortasunarekin bateragariak), eta oinarrizko bi kontzeptu batuz lortzen da: sarreren aurreikuspena eta defizit-helburua. Elementu berria, batez ere Egonkortasun eta Hazkunde Itunaren esparruan, honako hauxe da: administrazio publiko guztiak aurrekontu-diziplina bete behar dute, eta horren funtsezko elementua da defizit publikoaren helburu zehatz bat ezarri behar dutela (egonkortasun-helburua). Helburu horrek muga zehatz batzuen barruan egon behar du beti, posizio ziklikoaren arabera. Helburu hori betetzen ez bada, erreforma-programak ezarri behar dituzte, berriz ere egonkortasunera itzultzeko.

Europar Batasuneko kide diren herrialde guztiak diziplina hori bete behar dute, eta, Egonkortasun eta Hazkunde Itunean ezarritako irizpideen eta mugen arabera, euren egonkortasun-helburuak ezarri behar dituzte. Espainiaren kasuan, bere egonkortasun-helburuak autonomia-erkidegoen egonkortasun-helburuak ere jasotzen ditu, eta, aurrekontu-prozesuaren barruan, horiek erabakitzeko prozedura dago. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Itunaren 62. artikuluak ezartzen du Batzorde Mistoari dagokiola lankidetza- eta koordinazio-konpromisoak erabakitzea aurrekontu-egonkortasunaren arloan. Hala ere, aldez aurreko aldebioko akordioak lortu ahal izango dira Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Estatuko Administrazio Orokorraren artean.

El establecimiento desde arriba de un techo de gasto no financiero es un procedimiento que se está extendiendo en Europa después de la implantación del Pacto de Estabilidad y Crecimiento (PEC) y su propósito es modificar el proceso de elaboración presupuestaria, pasar de un modelo en el que el presupuesto es el resultado de la agregación de las necesidades planteadas por los centros gestores - que en muchos países ha sido el origen de la acumulación de importantes déficits públicos- a otro modelo, en el que primero se define la envolvente o marco financiero del presupuesto es decir el límite de gasto no financiero que luego en una segunda fase será repartido.

Ese techo de gasto que coincide con las posibilidades de financiación del presupuesto público, realistas y compatibles con la sostenibilidad de las finanzas públicas resulta de la agregación de dos conceptos básicos: la previsión de ingresos y el objetivo de déficit. El elemento nuevo, sobre todo en el marco del PEC, es que todas las administraciones públicas están sometidas a una disciplina presupuestaria cuyo elemento esencial es el planteamiento de un determinado objetivo de déficit público (objetivo de estabilidad) que siempre debe estar inscrito entre determinados límites, dependiendo de la posición cíclica, y en caso de que no se cumpla ese objetivo la obligación de adoptar programas de reforma para la vuelta a la estabilidad.

Todos los países miembros de la Unión Europea están sometidos a esta disciplina y todos deben plantearse sus objetivos de estabilidad de acuerdo a los criterios y límites establecidos en el PEC. En el caso de España su objetivo de estabilidad comprende también los objetivos de estabilidad de las Comunidades Autónomas y hay un procedimiento dentro del proceso presupuestario para acordar éstas. En el caso del País Vasco el art. 62 del Concierto establece que corresponderá a la Comisión Mixta el acordar los compromisos de colaboración y coordinación en materia de estabilidad presupuestaria, aunque podrán alcanzarse acuerdos previos de carácter bilateral entre la administración de la Comunidad Autónoma y la Administración General del Estado.

#### **EA Eren eta EA Oren artean erabakitako 2010-2012rako Aurrekontu Egonkortasunaren Helburua. Finantzaketa Gaitasuna (+) Beharra (-). SEC-95**

EA Eko BP Gren %

#### **Objetivo de Estabilidad Presupuestaria 2010-2012 Acordado entre la CAE y la AGE. Capacidad (+) Necesidad (-) de Financiación. SEC-95**

% del PIB de la CAE

2010	2011	2012
-2,5	-1,7	-1,3

\* Sartu gabe dago EAEko produkzio-jardueretarako inbertsio-programen ondoriozko defizita.

\*Sin incluir el déficit por programas de inversiones en actuaciones productivas de la CAE

Esparru horretan, 2009ko ekainean, bi administrazioen artean aurrekontu-egonkortasunaren beste helburu bat adostu zuten 2010erako. Krisiaren larritasuna eta zergasarreren jaitsiera handia aintzat hartuta, akordio horrek apur bat aldatzen du lehengo hiru urteko egoera, eta, BPGren balioetan, finantzaketa-behar apur bat handiagoak aurrez ikusten ditu, baina beherazko joerarekin.

2010erako aurrekontuak egiteko, Eusko Jaurlaritzak Egonkortasun eta Hazkunde Itunaren ondoriozko aurrekontu-prozedura berrian oinarritu zen, eta, horrela, ekainean, gastu ez-finantzarioaren muga ezarri zuen 2010erako, "Aurrekontuak egiteko jarraibide ekonomikoak" agirian. Aipatu behar da euskal erakundeak bereziak direla ogasun-arloan, eta, horren ondorioz, zerga-bilketaren azken zenbatespena ezin dela ezarri Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren urriko batzarrera arte. Hori dela-eta, ekaineko zenbatespen horiek behin-behinekoagoak dira Estatuko Administrazio Orokorraren zenbatespenak baino.

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak urriko batzarrean zerga-bilketaren ondoriozko sarrerak zenbatetsi eta gero, eta zorpetzearen muga ezarri zuen Itunaren Batzorde Mistoan estatua-rekin akordioa lortu ondoren, Eusko Jaurlaritzaren 2010erako aurrekontuen finantza-inguratzalea honela geratu da:

En ese marco en Junio de 2009 se acordó entre ambas administraciones un nuevo objetivo de estabilidad presupuestaria para 2010 que, en consideración a la gravedad de la crisis y a la fuerte reducción de los ingresos tributarios, modifica sensiblemente el antiguo escenario trienal contemplando unas necesidades de financiación en términos de PIB sensiblemente mayores aunque en descenso.

El Gobierno Vasco siguiendo este nuevo procedimiento presupuestario derivado del PEC en la elaboración de los presupuestos de 2010 procedió en junio a la fijación del límite de gasto no financiero para 2010 en el documento "Directrices económicas para la elaboración de los presupuestos". Hay que hacer notar que la peculiaridad institucional vasca en materia hacendística no permite fijar la estimación final de la recaudación hasta la reunión de octubre del Consejo Vasco de Finanzas por lo que estas estimaciones de junio tienen un valor más provisional que el que tienen las de la Administración General del Estado.

Tras la reunión de octubre del Consejo Vasco de Finanzas que ha estimado los ingresos por recaudación de impuestos y el acuerdo con el Estado en la Comisión Mixta del Concierto que fijó el límite de endeudamiento, la envolvente financiera de los presupuestos del Gobierno Vasco para 2010 queda como sigue:

#### **Eusko Jaurlaritzaren gastu ez-finantzarioaren muga 2010erako**

#### **Límite de gasto no financiero del Gobierno Vasco para 2010**

Milioi euro		Millones de euros
1. Sarrera erreales zenbatespena	8.267	1. Estimación de ingresos reales
2. Déficit Helburua (*)	1.832	2. Objetivo Déficit (*)
3. = (1+2). Gastu ez-finantzarioaren muga	10.099	3 = (1+2) Límite de gasto no financiero

\* Sartuta dago EAEko produkzio-jardueretarako inbertsio-programmen ondoriozko defizita.

\* Incluyendo el déficit por programas de inversiones en actuaciones productivas de la CAE.

Ondorioz, gastu ez-finantzarioaren muga 2010erako txikiagoa da 2009rako aurrez ikusitako gastu ez-finantzarioa baino, bereziki eguneratutako kredituei dagokienez. Datu horrek behartu egiten du gobernu datorren urterako kontuen doikuntza bat planteatzeria, gastu publiko guztiaren berrikuspen zorrotza egitera ez-emankorrak izan daitezkeen partida guztiak kentzeko eta soiltasun- edo austeritate-ahalegina egitera, gobernuaren lehentasunei heldu ahal izateko.

Como resultado, el techo de gasto no financiero para 2010 es inferior al gasto no financiero previsto para 2009, en especial en relación a los créditos actualizados. Es un dato que obliga a plantear un ajuste de las cuentas del próximo año, a una revisión minuciosa de todo el gasto público para eliminar todas aquellas partidas que puedan ser improductivas y a un esfuerzo de austeridad para poder abordar las prioridades del Gobierno.

#### **4.- EAEko 2010erako aurrekontu orokorrak: ekonomia-egonkortzearen eta kontu publikoen iraunkortasunaren artean**

2010erako hurrengo aurrekontuak diseinatzeko abiapuntuak hauek dira: alde batetik, gure ekonomiaren aldaketa negatiboaren aurreikuspena, inguruaren suspertze txikiaren eta igurikimenei hobekuntzaren testuinguruan, eta, bestetik, kontu publikoek duten desoreka garrantzitsua. Egoera horretan, aurrekontu-diseinuak oreka zaila bilatu behar du bi elementu hauen artean: batetik, eskari agregaturako pizgarriak mantentzeko beharra ekonomia egonkortzeko, suspertzea finkatzen ez den bitartean; bestetik, aurrekontu-egonkortasunarekiko konpromisoa.

##### **Zerga-pizgarrien politikak**

Eskari agregaturako pizgarriei eusteko beharrari dagokionez, duela gutxi Pittsburghen egin den G-20ren Goibilerak administrazioei gomendatu die jarraitu egin behar dutela eskariari lagunzeko politikekin, suspertze iraunkorra ziurtatuta egon arte, eta ohartarazi die arriskutsua izan daitekeela pizgarri horiek goizegi kentzea. Aldi berean, irteteko estrategiak prestatzeko eskatu die, eta, egokia denean, ezohiko lagunza horiek kentzeko, zerga-erantzukizunaren konpromisoei eutsiz.

Erronka, hain zuzen ere, honetan datza: ezohiko neurri horiek kentzeko une egokia aurkitu behar da, goizegi kentzen badira lortutako emaitzak alferrik gal daitezkeelako, eta, gehiegi lutzatzen badira, ondorioak izan ditzakeelako kontuen orekan. Gure ustez, aurrez ikusitako ekonomiabilakaera baieztatzen bada, pizgarriak 2010. urtearen amaiera aldera kendu beharko lirateke; hala ere, pizgarri horiek pixkanaka kendu beharko lirateke, suspertzeari kalterik ez egiteko. Ildo horretan, honako neurri hauel esker, zerga-sarrerak apur bat suspertuko dira, eta suspertze hori gehiago nabarituko da urteko bigarren seihilekotik aurrera: Euskadiko Zerga Kideketarako Sailak erabakitako neurriak PFEZari dagokionez (400 euro-ko kenkaria zati batean kentzea eta aurrezki-errenten zerga-tasa igotzea), eta Estatuko Administrazioak iragarritako BEZaren zerga-tasen aldaketa (Foru Ogasunek aplikatu egin behar dute, Itunak hori agintzen duelako); horrez gain, 2010ean ez dira indarrean egongo 2009an eragin kaltegarria izan duten zerga-politikako zenbait neurri, hala nola BEZaren hileko itzulketen erregimena orokortzea. Edonola ere, Eusko Jaurlaritzaren kontuen 2010erako defizit publikoak adierazten digu sektore publikoak ekonomian baliabide gehiago sartzen jarraituko duela kentzen dituenak baino; beraz, ekonomia-jarduerarako pizgarrien politika antiziklikoarekin jarraituko du.

##### **Zerga-finkapeneko politika**

#### **4.- Los presupuestos generales de la CAE 2010: entre la estabilización económica y la sostenibilidad de las cuentas públicas**

El punto de partida para el diseño de los próximos presupuestos de 2010 es, por un lado, una previsión de variación negativa de nuestra economía en un contexto de leve recuperación del entorno y una mejora de las expectativas y, por otro, la existencia de un desequilibrio importante en las cuentas públicas. En esta coyuntura el diseño presupuestario debe buscar un difícil equilibrio entre dos elementos: por un lado la necesidad de mantener los estímulos a la demanda agregada para estabilizar la economía mientras no se consolide la recuperación y, por el otro, el compromiso con la estabilidad presupuestaria.

##### **Políticas de estímulo fiscal**

Respecto a la necesidad de mantener los estímulos a la demanda agregada la reciente Cumbre del G-20 de Pittsburgh recomienda a las administraciones que deben continuar con sus políticas de apoyo a la demanda hasta que esté asegurada una recuperación duradera, y advierte del peligro de proceder a una retirada prematura de los estímulos. Al mismo tiempo invita a preparar estrategias de salida y, cuando sea oportuno, retirar esos apoyos extraordinarios manteniendo los compromisos de responsabilidad fiscal.

El reto consiste precisamente en identificar el momento apropiado para eliminar esas medidas extraordinarias evitando tanto una retirada prematura que pudiera malograrse los resultados alcanzados como una prolongación excesiva que terminaría por afectar al equilibrio de las cuentas. Entendemos que si se confirma la evolución económica prevista la retirada de estímulos debería producirse hacia finales de 2010 y debería ser progresiva para no perjudicar la recuperación. En este sentido, el impacto recaudatorio de las medidas acordadas en el Órgano de Coordinación tributaria de Euskadi (OCTE) relativas al IRPF (supresión parcial de la deducción de 400 euros y elevación del tipo impositivo de las rentas de ahorro), y el de la modificación de los tipos impositivos del IVA anunciada por la Administración del Estado que las Haciendas Forales deben aplicar por prescripción del Concierto, así como la pérdida de efecto en 2010 de algunas medidas de política tributaria que tuvieron un impacto negativo en 2009, caso de la generalización del régimen de devoluciones mensuales en el IVA, van a permitir una ligera recuperación de los ingresos tributarios que se hará más notoria a partir del segundo semestre del año. De todas formas, el déficit público en las cuentas del Gobierno Vasco para 2010 nos indica que el Sector Público seguirá inyectando más recursos en la economía que los que detrae siguiendo por lo tanto con la política anticíclica de estímulo de la actividad económica.

##### **Política de consolidación fiscal**

Bestalde, igurikimenen hobekuntza baieztatzen bada, krisian galduak orekak berreskuratzeko estrategiak ere ezarri beharko dira, batez ere lan-merkatuarena eta kontu publikoena. Bi oreka horiek lotuta daude. Istan ere, empleguas suspertzen bada, hobetu egingo da familien eta empresasen finantza-egoera, bai eta finantza publikoen oreka ere, zerga-oinarriak berreskuratzen direlako eta defizitaren osagai ziklikoa berriro xurgatzen delako, egonkortzaile automatikoen finantzaketa-beharrak txikitzearen ondorioz.

Zerga-finkapeneko politikak diseinatzeko, defizit publikoa zergatik sortu den jakin behar da; defizit horren bi osagaien deskonposizioa ezagutu behar da: ziklikoa eta egiturazkoa. Defizit ziklikoa berriro xurgatuko da suspertzearen eraginez, egonkortzaile automatikoen funtzionatzeari uzten diotenean, batez ere empleguas suspertzen denean eta gobernuaren pizgarri bereziak desagertzen direnean, sarrerakoak zein gastukoak; bestalde, egiturazko defizitak irau egingo du krisitik irten eta gero.

Horrela, bada, elementu batzuek adierazten dute bi urte hauetan sortutako defizitak egiturazko osagai garrantzitsua duela, eta egoera ziklikoa normalizatu eta osagai ziklikoa desagertzen denean agertuko dela. Higiezinen sektorearen goraldi artifizialari lotutako zerga-sarrera ugari desagertzeak eta asmo handiko legediak babestutako gizarte-gastuaren bolumen handia finkatzeak sorrazti dute, seguruenik, egiturazko desoreka garrantzitsu hau.

Beraz, zerga-finkapeneko politika sarrerei zein gastuei eragiten dien eten hori txikitzena bideratu behar da. Gobernuaren aurrekontu-politikak elementu garrantzitsuak sartzen ditu bi kapituluetan. Sarrerei dagokienez, klase behartsuenei eragingo ez dieten kenkari garrantzitsuak kenduko dira, eta gobernuaren sarrera ez-finanzarioak handitu behar dituzten zenbait zerga aldatuko dira. Gastuari dagokionez, soiltasun-edo austerrate-politika aplikatuko da, eta 2009an hasitako politikarekin jarraituko da, gastu publiko osoa berrikusi eta aztertuz, emankorra ez den gastua kentzeko, bai gastu arruntean, bai inbertsioan.

## 5. EAEko 2010erako aurrekontu orokorren lehentasun nagusiak

2010eko aurrekontuak diseinatzeko, bost lehentasun nagusi ezarri dira. Lehentasun horiek azaldu den ekonomia- eta gizarte-egoerari gobernuak ematen dion erantzuna erakusten dute.

### Krisiaren aurka borrokatzeko aurrekontua

Por otro lado, si la mejora de expectativas se confirma deben también considerarse estrategias para recuperar los equilibrios perdidos durante la crisis principalmente el del mercado de trabajo y el de las cuentas públicas. Los dos están conectados porque la recuperación del empleo permite la mejora de la posición financiera de las familias y de las empresas y también el equilibrio de las finanzas públicas porque se recuperan las bases imponibles y se reabsorbe el componente cíclico del déficit por la disminución de las necesidades de financiación de los estabilizadores automáticos.

Para diseñar las políticas de consolidación fiscal es preciso conocer los motivos por los que se ha producido el déficit público, conocer la descomposición entre los dos componentes del mismo: el cíclico y el estructural. El déficit cíclico se reabsorberá con la recuperación, cuando los estabilizadores automáticos dejen de funcionar, principalmente con la recuperación del empleo y cuando desaparezcan las medidas discrecionales de estímulo del gobierno, tanto las de ingreso como las de gasto, mientras que el déficit estructural permanecerá tras la salida de la crisis.

Pues bien, algunos elementos indican que el déficit generado estos dos años tiene un importante componente estructural que aparecerá cuando la situación cíclica se haya normalizado y haya desaparecido el componente cíclico. La desaparición de cuantiosos ingresos fiscales vinculados al auge artificial del sector inmobiliario y la consolidación de un importante volumen de gasto social amparado por una legislación ambiciosa han producido seguramente este importante desajuste estructural.

Por lo tanto la política de consolidación fiscal debe aplicarse a reducir esta brecha que afecta tanto a los ingresos como a los gastos. La política presupuestaria del Gobierno introduce importantes elementos en ambos capítulos. Desde el lado de los ingresos se van a eliminar importantes deducciones que no afectarán a las clases más desfavorecidas y se reformarán determinados impuestos que deben aumentar los ingresos no financieros del Gobierno. Desde el lado del gasto se aplicará una política de austeridad y se continuará con una política ya iniciada en 2009 de revisión y escrutinio de todo el gasto público para eliminar el gasto improductivo tanto en materia de gasto corriente como de inversión.

## 5. Principales prioridades de los presupuestos generales de la CAE 2010

Para el diseño de los presupuestos de 2010 se han establecido cinco grandes prioridades que reflejan la respuesta que se da desde el Gobierno a la situación económico social que se ha descrito.

### Un presupuesto para la lucha contra la crisis

Aurrekontuek hainbat neurri jasotzen dituzte, batetik, krisiak bereziki kaltetu dituen pertsonen egoera leuntzeko, eta, bestetik, enpresa-egiturari laguntzeko, egungo ezohiko egoera honetan jarduerari eta emplegari eusteko gai izan daitezen. Ekonomia- eta enpresa-jarduera sustatzeko neurriak ere jasotzen dituzte, etorkizunera begira aukerak dituen proiektu serio bat ere geratu ez dadin egin gabe, finantzaketa-faltagatik.

Makroekonomia-ikuspegitik, gastu ez-finantzarioaren bolumena iazkoa baino txikiagoa bada ere, sarrera ez-finantzarioen bolumena ere txikiagoa da, baina ehuneko handiagoan. Beraz, hedapen-aurrekontuak dira, gastuaren bidez ekonomiari sartzen zaizkion ekonomia-fluxuak handiagoak direlako zergen bidez kentzen zaizkionak baino. Finantzaketa-beharra (deficit público) BPGren %2,5eko gehieneko mugara hurbiltzen da. Muga hori Estatuko Administrazio Orokorrarekin adostu da, Europar Batasunaren Egonkortasun eta Hazkunde Itunaren esparruan.

Zenbaketa global horretatik, %1 inguru aurrezki negatiboarekin lotutakoa izango da, hau da, gastu arrunt ez-finantzarioaren bolumena handiagoa izango da sarrera arrunt ez-finantzarioen bolumena baino. Badirudi horrek hautsi egiten duela kreditu-eragiketak inbertsio-gastuak finantzatzeko soilik itundu ahal izango direla ezartzen duen araua. Hala ere, deficit públicoaren zati hori egonkortzaile automatikoen funtzionamenduaren ondorioz sortzen da, eta, beraz, osagai zikliko handia dauka. Osagai zikliko hori berriro xurgatuko da datorren ekitaldian, ekonomia-egoera egonkortzen denean. Gure ustez, zerga-arau hori ziklo osoa aintzat hartuz bete behar da. Gauza bera gertatzen da Egonkortasun eta Hazkunde Ituneko aurrekontu-orekaren konpromisoekin. Hori egiten du Estatuko Administrazio Orokorrak 2010erako aurrekontu-proiektau, aurrekontu horiek ere aurrezki negatiboa aurkezten baitute. Bestalde, kontuan hartu behar da, baita ere, Eusko Jaurlaritzaren gastu arruntaren zati handi batek, bereziki hezkuntzari, eta, oro har, giza kapitalari zuzendutakoak, produkzio-izaera duela. Are gehiago, ekonomia-hazkundearen eredu berria jakintzan oinarritu nahi duen gizarte batek ezin dio utzi biztanleen hezkuntzan gastatzeari, hori baita etorkizunerako inbertsiorik onena.

Los presupuestos contemplan medidas tanto para aliviar la situación de las personas que están siendo especialmente golpeadas por la crisis como medidas de apoyo al tejido empresarial para que en una situación excepcional como la actual puedan mantener la actividad y el empleo. También contemplan medidas de promoción de la actividad económica y empresarial para que ningún proyecto serio y con expectativas de futuro se quede sin realizar por falta de financiación.

Desde una perspectiva macroeconómica, aunque el volumen de gasto no financiero sea inferior al del año pasado, el volumen de ingresos no financieros es inferior en un porcentaje superior. Los presupuestos tienen por lo tanto un carácter expansivo porque se inyectan a la economía a través del gasto unos flujos económicos superiores a los que se detraen mediante impuestos. La Necesidad de Financiación (déficit público) se aproxima al tope del 2,5 % del PIB acordado con la Administración General del Estado en el marco del Pacto de Estabilidad y Crecimiento de la Unión Europea.

De este cómputo global aproximadamente un 1% corresponderá al ahorro negativo, es decir, el volumen de gasto corriente no financiero será superior al volumen de ingresos corrientes no financieros. Esto parece contravenir a la norma que establece que las operaciones de crédito solo se podrán concertar para la exclusiva financiación de los gastos de inversión. No obstante, se entiende que esa parte del déficit público se origina por el funcionamiento de los estabilizadores automáticos y tiene por lo tanto un fuerte componente cíclico que se reabsorberá en el próximo ejercicio cuando la situación económica se stabilice. Entendemos que esta regla fiscal debe cumplirse tomando en consideración el conjunto del ciclo, al igual que sucede con los compromisos de equilibrio presupuestario del Pacto de Estabilidad y Crecimiento. Así lo hace la Administración General del Estado en su proyecto de presupuestos para 2010 que presentan también ahorro negativo. Por otra parte también es preciso considerar que una parte importante del gasto corriente del Gobierno Vasco, en especial el dedicado a la educación y en general al capital humano tiene un carácter productivo. Es más, una sociedad que quiere basar su nuevo modelo de crecimiento económico en el conocimiento no puede dejar de gastar en la educación de la población como la mejor inversión para el futuro.

### Gizarte-babeserako gastuaren hazkundea

Azken urteetan, asmo handiko gizarte-legediaren eta bestelako jardueren bitartez, gizarte-babeserako neurri zabalak finkatu dira familientzat, langabeentzat, eta, oro har, pertsona behartsuenentzat. Politika horrek jarraitu egingo du 2010. urteko ekitaldian, eta "Gizarte Babesa" ataleko gastuak ia %10 handituko dira. Beraz, aurrekontu hauek gizarte-izaera nabarmena daukate, are gehiago kontuan hartzen badugu aurrekontuaren guztizko zenbatekoa txikiagoa dela iazkoa baino, eta aurrekontumurriketa handiak egin direla partida askotan.

### Crecimiento del gasto en protección social

